



LIBURUA

Dekolonizazio ariketa



NIRLIIT

EGILEA: JULIANA
LÉVEILLÉ-TRUDEL

ITZULTZAILEA: AIORA JAKA
TXALAPARTA

AMAIA ALVAREZ URIA

Ohiko eztabaida bat da bizi izan ez duzun zapalkuntza bati buruz idatzi dezakezun, pribilegio kokapen batean egonda. Gizonek emakumeen esperientziari buruz hitz egin dezakete? Heterosexualek lesbiana eta gayei buruz? Zuriak arrazializatuei buruz? Alde batetik diskriminazioa eta bazterketa jasandakoen ahotsari entzutea da aberasgarriena, baina beste alde batetik egin beharreko lana ere bada bakoitzak bere botere kokapenari kritikoki begiratzea. Horretan dihardu idazleak.

Juliana Léveillé-Trudel da egilea eta Kanadako Artikoan bizi den inuit komunitateari buruz arituko zaigu. Azken udak han pasa ditu haurrentzako jarduerak antolatzen eta dinamizatzen eta bertan ikusi eta ikasitakoak aletuko dizkigu. Emakume gazte zuri frantses-hiztun kanadiar/quebekiar baten

esperientzia eta gogoetak partekatuko ditu boteregabetutako, sarraskitutako, eta ustiatutako komunitate baten berri emanez.

Azalean *Nirliit* izenburua topa dezakegu: 'antzara' inuktitut hizkuntzan, eta protagonistaren metafora, udan iparraldera doalako eta neguan hegoaldera. Azaleko irudiari dagokionez, 'bisutsa' dugu, haizeak barreiatzen duen elur txiki sarria, izan ere, oso eremu hotz eta gogorra da klimatikoki, basomugaren iparraldean bizi dira, tundran, argitasun itsugarria eta iluntasun hitsa txandakatzen diren lurraldean.

Protagonistak erail eta desagerrarazi duten bere laguna zen Evari eta Evaren semea, Elijahri hitz egiten die. Bakarriketon bidez herri baten erradiografia egiten digu, bere ikuspegitik, zerikusirik ez duena Conraden

Afrika orientalistarekin edota Fosterrren India exotikoarekin. Narratzai-leak dioenez: "Errudun sentitzen naiz neure herrialde aberatsagatik, neure familia batuagatik, neure heziketagatik. Suak itzaltzeko premia sentitzen dut, haurrak salbatzekoa, mundu ustel honetan zerbait egitekoa". Europarren Kanadako kolonizazioa agerian utziko digu, ehiztari nomadak nola bihurtu zituzten sedentario eta menpeko. Biolentzia handiko egunerokotasuna bizi dute, azken aldiko prentsan ere ageri dena: hildako emakume indigenei buruzko ikerketaren arabera 'arrazan oinarrituriko genozidio bat' gertatu da; eta erakundeek kudeatutako eta haien kultura baztertu eta diziplinatuzko xedea zuten barnetegi askotan ehunka haur indigenaren gorpuak aurkitzen ari dira. ●